Urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuaren arabera (berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituena eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena), berdintasun plana egin beharra dakarren pertsona-kopurua kalkulatzeko, enpresaren plantilla osoa hartuko da kontuan, edozein izanda ere haren lan-zentroak eta edozein izanda ere lan-kontratazioaren modalitatea; alegia, pertsona hauek ere kontuan hartuko dira: bai aldizkako lan-kontratu finkoak dituzten pertsonak, bai iraupen jakineko kontratuak dituzten pertsonak eta bai langileak lagatzeko kontratuak dituzten pertsonak.

De conformidad con el Real Decreto 901/2020, de 13 de octubre, por el que se regulan los planes de igualdad y su registro y se modifica el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo, sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos de trabajo, para el cálculo del número de personas que dan lugar a la obligación de elaborar un plan de igualdad, se tendrá en cuenta la plantilla total de la empresa, cualquiera que sea el número de centros de trabajo de aquella y cualquiera que sea la forma de contratación laboral, incluidas las personas con contratos fijos discontinuos, con contratos de duración determinada y personas con contratos de puesta a disposición.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62 eta 210. artikuluen arabera, kontratuaren arduradunak ikuskatuko du ea kontratuko berdintasun-baldintzak betetzen diren, segimendua egingo du, eta horretarako behar diren erabakiak hartuko ditu. Ikuskapena ez da bukaeran bakarrik egingo; aitzitik, jarraitua izango da. Halaber, baldintza hauek betetzeko, adjudikaziodunak Berdintasun Departamentuaren aholkularitza eta laguntza jaso ahal izango ditu.

De conformidad con el artículo 62 y 210 de la LCSP, la persona responsable del contrato inspeccionará el cumplimiento de condiciones de igualdad del contrato, hará seguimiento, adoptará las decisiones y dictará las instrucciones necesarias a tal fin. La inspección se realizará no solo a su finalización sino de modo continuado. Asimismo, para el cumplimiento de estos requisitos, la empresa adjudicataria podrá contar con el asesoramiento y la ayuda del Departamento de Igualdad.

Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, Kontratuen Legearen ondorioetarako. Hortaz, baldintzok betetzen ez badira,

Los requisitos de esta cláusula constituyen obligaciones esenciales del contrato a los efectos de la LCSP, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA
www.zumaia.eus •e-mail: udala@zumaia.eus

kontratua bukatu daiteke, lege horren 211.f) artikuluaren arabera.

20.3.- Baimen eta lizentzien kudeaketaren esparruko betebeharrak

1.- Lanak egokiro gauzatzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortzea enpresa kontratistaren kontura izango da, eta enpresa kontratista arduratuko da horiez, kontratazio-organoak bere kabuz kudeatzea erabakitzen duenean salbu; beraz, dagozkien organismoen baldintzak eta aginduak bete beharko dituzte horretarako.

2.- Baimen edo lizentzia horien gainean tasak, fidantzak edo bestelako gastuak eskatzen direnean, enpresa kontratistaren kargura izango da horien ordainketa eta gordailutzea.

20.4.- Kontratistari eska dakizkiokeen gastuak

Adjudikaziodunak ordainduko ditu ondorengo gastuak:

- Adjudikaziodunaren kontu izango dira zerbitzuak emateko beharrezko gastu arruntak, hala nola, argi indarra, ur kontsumoa… baita lagatzen diren instalazioen zein makinen konpontze eta mantentze gastuak ere, eta zerbitzuan alta ematea ere.
- Suteetatik babesteko sistema mantentzeko nahitaezko kontratua eta nahitaezko aldizkako ikuskapen gastuak.
- Izurriteen aurkako tratamenduak.
- Legionella proba.
- Zabor bilketa zerbitzuan sortutako gastuak.
- Hondartza eremua okupatzearren udalak ordaindutako kanona.

conformidad con el artículo 211. f) de la citada ley.

20.3.- Obligaciones relativas a la gestión de permisos, licencias y autorizaciones

1.- Será de cuenta y responsabilidad de la empresa contratista, salvo que el órgano de contratación decida gestionarlo por sí mismo, la obtención de cuantos permisos, licencias y autorizaciones sean precisos para la correcta ejecución de los trabajos, debiendo atender los consiguientes condicionados y prescripciones de los organismos competentes.

2.- Cuando se exijan tasas, fianzas u otros gastos por dichos permisos, licencias o autorizaciones, su abono o depósito será también a cargo de la empresa contratista.

20.4.- Gastos exigibles al contratista

La empresa adjudicataria se hará cargo de los siguientes gastos:

- Serán a cuenta del adjudicatario los gastos corrientes necesarios para la prestación de los servicios, tales como energía eléctrica, consumo de agua, así como los gastos de reparación y mantenimiento de las instalaciones y maquinaria que se cedan, así como el alta en el servicio.
- Contrato obligatorio de mantenimiento del sistema de protección contra incendios y gastos de inspecciones periódicas obligatorias.
- Tratamientos de desinsectación y desratización.
- Prueba de legionella.
- Los gastos generados en la recogida de basura.
- El canon por ocupación de Costas que previamente habrá abonado

el ayuntamiento.

Udalak ez ditu bere gain hartuko adjudikaziodunari ezar dakizkiokeen zigorrak, hala nola terrazaren edo pilaketa-eremuaren baimendutako azalera gainditzea. Zehapen hori egonez gero, adjudikaziodunak gauzatu beharko ditu ordainketa horiek.

El ayuntamiento no se hará cargo del pago de posibles sanciones impuestas al adjudicatario, tales como superar la superficie ocupación permitida de terraza o zona de acopio. En el caso de producirse tal sanción dichos pagos deberán ser abonador por el adjudicatario.

Udala ez da erantzule izango enpresa hornitzaileei ez ordaintzeagatik, instalazioetan egin daitezkeen narriadura edo lapurrengatik, ez eta adjudikaziodunak hirugarrenei eragin diezazkiekeen kalte edo galerengatik ere; horretarako, erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat sinatu beharko du.

El Ayuntamiento no se hará responsable de la falta de pago a las empresas proveedoras, de los deterioros o robos que se puedan cometer en las instalaciones ni de los daños o perjuicios que la adjudicataria pueda producir a terceros, a cuyo efecto deberá suscribir una póliza de seguro de responsabilidad civil.

Kontratistaren kontura izango dira kontratuaren formalizazio-gastuak, eskritura publikoak egin behar badira, eta haren kontura izango dira kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren gainerako lizentziak eta baimenak ere.

Son de cuenta de la contratista los gastos de formalización del contrato en el supuesto de elevación a escritura pública y cuantas licencias, autorizaciones y permisos procedan en orden a ejecutar el contrato.

20.5.- Kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daitezkeen oinarrizko betebeharrak.

20.5.- Obligaciones esenciales que pueden ser causa de resolución del contrato.

Kontratua gauzatzeari begira, oinarrizko betebeharrak izango dira hauek:

Tendrán la condición de obligaciones esenciales de ejecución del contrato, las siguientes:

a. Adjudikaziodunaren proposamena betetzea, balioespenaren xede izan diren alderdi guztietan, kontraturako ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera.

a. El cumplimiento de la propuesta del adjudicatario en todo aquello que haya sido objeto de valoración de acuerdo con los criterios de adjudicación establecidos para el contrato.

b. Azpikontratazioaren inguruan administrazio-baldintza berezien agiri honetan xedatutako betebeharrak.

b. Las obligaciones establecidas en el presente pliego de cláusulas administrativas particulares en relación con la subcontratación.

c. Kontratua gauzatzeko atxikitako baliabide pertsonal eta materialen inguruan administrazio-baldintza berezien

c. Las obligaciones establecidas en el presente pliego de cláusulas administrativas particulares en relación

agiri honetan xedatutako betebeharrak.

d. Indarreko araudian eta segurtasun- eta osasun-planean segurtasunari eta osasunari buruz aurreikusten diren neurriak hertsiki betetzea.

e. Langileen soldata eta PFEZ atxikipena ordaintzea, bai eta Gizarte Segurantzari dagozkion kuotak unean-unean ordaintzea ere.

f. Baldintza-agirian kontratua gauzatzeko ezarritako baldintza bereziak betetzea.

Kontraturako oinarrizkoak diren betebehar horien betetze maila kontrolatzeko, adjudikaziodunak honako informazio hau aurkeztu behar dio kontratua izapidetu duen administrazio-unitateari hiru hilean behin:

— Soldaten ordainketa eta Gizarte Segurantzako kuotena egin dela erakusten duten agiriak, bai eta azpikontratistei egindakoenak ere.

— Lan-segurtasunaren eta osasunaren esparruan bere betebeharrak betetzeko garatzen dituen jarduerak zehatz-mehatz azaltzen dituen txostena, esparru horretan hiruhilekoan sortu diren gorabeherak ere jasotzen dituena.

Kontratuaren udal-arduradunak, justifikazio horri dagokionez, betebehar horien betetze mailari buruzko txostena egingo du. Kontratua kudeatzen duten langileei dagokionez, klausula honetan adierazitako betebeharren betetze mailari buruzko erreferentzia egingo da berariaz txosten horretan.

Aldeko txostena izan gabe, ez da bideratuko dagokion faktura, eta zehapen-espedientea edo kontratua suntsiarazteko espedientea abiaraziko da berehala, dagokionaren arabera.

con la adscripción de medios personales y materiales a la ejecución del contrato.

d. El cumplimiento estricto de las medidas de seguridad y salud previstas en la normativa vigente y en el plan de seguridad y salud.

e. El pago de los salarios a los trabajadores y su retención de IRPF, así como el abono puntual de las cuotas correspondientes a la Seguridad Social.

f. El cumplimiento de las condiciones especiales de ejecución establecidas en los pliegos.

Para controlar el cumplimiento de estas obligaciones contractuales esenciales, el adjudicatario debe presentar trimestralmente ante la unidad administrativa que ha tramitado el contrato, la siguiente información:

— Los documentos justificativos de los pagos salariales y a la Seguridad Social, así como de los realizados a los subcontratistas.

— Informe especificativo de las actuaciones que realiza para el cumplimiento de sus obligaciones en materia de seguridad y salud laboral, indicando las incidencias que se hayan producido al respecto en cada trimestre.

El responsable municipal del contrato elaborará un informe sobre el cumplimiento de dicha justificación. En ese informe se hará también expresa referencia al cumplimiento de las obligaciones indicadas en esta cláusula en relación con el personal que gestiona el contrato.

Sin dicho informe favorable no se dará curso al pago de la factura correspondiente y se iniciará de inmediato un expediente de penalización o de resolución del contrato, según

proceda.

20.6.- Berme-epea

Kontratuaren xedeak hilabeteko berme-epea izango du, lanaren harrera-datatik edo lanarekiko adostasuna erakutsitako datatik zenbatzen hasita. Epe horretan, Administrazioak egiaztatu ahal izango du eginiko lana berau egikaritzeko eta betetzeko ezarritako baldintzetara egokitzen dela, bai eta agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian ezarritakora ere. Berme-epea igaro eta eginiko lanei eragozpenik jarri ez bazaie, kontratistaren erantzukizuna iraungi egingo da.

Berme-epean, eginiko lanetan akatsak edo okerrak daudela egiaztatuz gero, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari horiek zuzentzeko eskatzeko.

20.6.- Plazo de garantía

El objeto del contrato quedará sujeto a un plazo de garantía de un mes, a contar desde la fecha de recepción o conformidad del trabajo, plazo durante el cual la Administración podrá comprobar que el trabajo realizado se ajusta a las prescripciones establecidas para su ejecución y cumplimiento y a lo estipulado en el presente pliego y en el de prescripciones técnicas. Transcurrido el plazo de garantía sin que se hayan formulado reparos a los trabajos ejecutados, quedará extinguida la responsabilidad del contratista.

Si durante el plazo de garantía se acreditase la existencia de vicios o defectos en los trabajos efectuados el órgano de contratación tendrá derecho a reclamar al contratista la subsanación de los mismos.

21.- AZPIKONTRATAZIOA

Baimenduta dago kontratuaren xede diren prestazioen azpikontratazio partziala egitea, Zerbitzu Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 215. artikuluan xedatutako eran eta baldintzetan.

Oinarrizko eskakizun batzuk bete beharko dira azpikontratazio horretarako. Hauek dira oinarrizko baldintza horiek:

a) Egin asmo duen azpikontratazio bakoitzari dagokionez, adjudikaziodunak aurrez udalari idatziz horren berri eman beharko dio, honako datu hauek aurkeztuz:

-Azpikontratistaren identifikazioa, haren nortasunari, gaitasunari eta kaudimenari buruzko datuak emanez.

-Azpikontratistak egingo dituen kontratuko atalen identifikazioa.

-Azpikontratatuko dituen

21.- SUBCONTRATACIÓN

Se autoriza la subcontratación parcial de las prestaciones accesorias objeto del contrato en los términos y con las condiciones que establece el artículo 215 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

La subcontratación deberá realizarse cumpliendo los requisitos básicos siguientes:

a) Comunicación previa y por escrito al Ayuntamiento del adjudicatario de los datos siguientes en relación con cada subcontrato que pretenda realizar:

-Identificación del subcontratista, con sus datos de personalidad, capacidad y solvencia.

-Identificación de las partes del contrato a realizar por el subcontratista.

-Importe de las prestaciones a

prestazioen zenbatekoa.

b) Ezin izango dira azpikontratatu administrazioarekin kontratuak egiteko baztertuta dauden pertsonekin edo enpresekin, ez eta azpikontratazioaren barneko prestazio zehatz horietarako gaitasunik, kaudimenik eta gaikuntzarik ez dutenekin ere.

c) Azpikontratatzen duen kontratistak, azpikontratistaren lanak hasi aurretik, lan horiek egingo dituzten langileen afiliazioa eta Gizarte Segurantzako alta egiaztatu beharko ditu, apirilaren 29ko 5/2011 Errege Lege Dekretuak, ezkutuko enplegua erregularizatu eta kontrolatzeko eta etxebizitzen zaharberritzea sustatzeko neurriei buruzkoak, xedatzen duena betez.

d) Azpikontratazio horren barneko langileen ordezkariei informazioa eman beharko dio kontratistak, lan-legediarekin bat etorrita.

e) Kontratista nagusiaren aurrean soilik gelditukо dira behartuta azpikontratistak, kontratista nagusi horrek hartuko baitu bere gain udalaren aurrean kontratua gauzatzearen ardura osoa, administrazio-baldintza berezien agiriarekin eta kontratuarekin bat etorrita; udalak azpikontratazioen berri izateak ez du aldatutako kontratista nagusiaren erantzukizuna.

f) Gutxienez abenduaren 29ko 3/2004 Legean, merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituenean, aurreikusitako epeetan ordainduko die kontratistak azpikontratistei prestazioei dagokien itundutako prezioa. Hori horrela betetzen dela bermatzeko, udalari zuzendutako fakturazio bakoitzarekin batera, kontratu honen esparruan

subcontratar.

b) No podrá subcontratarse con personas o empresas inhabilitadas para contratar con la Administración ni carentes de la capacidad, solvencia y habilitación profesional precisa para ejecutar las prestaciones concretas que se subcontratan.

c) El contratista que subcontrate deberá comprobar con carácter previo al inicio de los trabajos que subcontrate, la afiliación y alta en la Seguridad Social de los trabajadores que vayan a realizar los trabajos en cuestión en cumplimiento de lo establecido en el Real Decreto-ley 5/2011, de 29 de abril, de medidas para la regularización y control del empleo sumergido y fomento de la rehabilitación de viviendas.

d) El contratista deberá informar a los representantes de los trabajadores de la subcontratación, de acuerdo con la legislación laboral.

e) Los subcontratistas quedarán obligados sólo ante el contratista principal que asumirá la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente al Ayuntamiento, con arreglo estricto a los pliegos de cláusulas administrativas particulares y a los términos del contrato, sin que el conocimiento por parte del Ayuntamiento de la existencia de subcontrataciones altere la responsabilidad exclusiva del contratista principal.

f) El contratista deberá abonar a los subcontratistas el precio pactado por las prestaciones que realicen como mínimo en los plazos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para garantizar tal cumplimiento, con cada facturación al Ayuntamiento deberá el contratista

azpikontratatutako enpresa edo langile autonomoek aurreko hilabetean egindako lanen ordainketari dagokion agiria aurkeztu beharko du kontratistak.

aportar el justificante del pago de los trabajos realizados en el mes anterior por las empresas o autónomos que haya subcontratado en el marco del presente contrato.

22.- KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiengatik soilik aldatu ahal izango da kontratu hau, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta moduan, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 207. artikuluan araututako prozedurarekin bat etorriz.

22.- MODIFICACION DEL CONTRATO

El presente contrato sólo podrá ser modificado por razones de interés público en los casos y en la forma prevista en el artículo 205 de la LCSP y de acuerdo con el procedimiento regulado en el artículo 207 de la LCSP.

Kasu horietan, kontratazio-organoak adostutako aldaketak nahitaezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat, baldin eta, bakarka edo batera, kontratuaren hasierako prezioaren % 20 gainditzen ez duen aldaketa dakartenean, BEZa kontuan hartu gabe.

En estos casos, las modificaciones acordadas por el órgano de contratación serán obligatorias para la empresa contratista, cuando impliquen, aislada o conjuntamente, una alteración en su cuantía que no exceda del 20 por ciento del precio inicial del contrato, IVA excluido.

23.- KONTRATISTAREN NORTASUNEAN JARRAIPENA

1.- Enpresen edo horien jarduera-adarren artean bategiteak, zatiketak, ekarpenak edo eskualdatzeak izaten direnean, kontratuak jarraitu egingo du kontratua egozten zaion erakundearekin, eta erakunde horri subrogatuko zaizkio handik sortutako eskubide eta betebehar guztiak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 98. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen badira. Kontratista aldi baterako enpresa-elkarte bat denean, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 69.8 artikuluan xedatutakoa beteko da.

23.- SUCESIÓN EN LA PERSONA DE LA CONTRATISTA

1.- En los casos de fusión, escisión, aportación o transmisión de empresas o ramas de actividad de las mismas continuará el contrato con la entidad a la que se atribuye el contrato, que quedará subrogada en los derechos y obligaciones dimanantes del mismo, si se cumplen las condiciones exigidas en el artículo 98 de la LCSP. Cuando la contratista sea una unión temporal de empresas se estará a lo establecido en el artículo 69.8 de la LCSP.

2.- Kontratistaren betebeharra da bere izaera juridikoari eragiten dion edozein aldaketaren berri ematea administrazioari, modu fede-emailean, eta, horrelakoetan, gelditu egingo da dagozkion faktura ordaintzeko legez aurreikusitako epeen zenbaketa, horiek egiaztatu arte.

2.- Es obligación de la contratista comunicar fehacientemente a la Administración cualquier cambio que afecte a su personalidad jurídica, suspendiéndose el cómputo de los plazos legalmente previstos para el abono de las facturas correspondientes hasta que se verifiquen los mismos.

3.- Kontratua eman behar zaion erakundeak beharrezkoak diren kaudimen-baldintzak ez dituelako subrogazioa egin ezin bada, kontratua suntsitu egingo da, eta adjudikaziodunaren erruagatik suntsitutzat emateko arrazoitzat hartuko da, ondorio guztietarako.

3.- Si no pudiese producirse la subrogación por no reunir la entidad a la que se atribuya el contrato las condiciones de solvencia necesarias, se resolverá el contrato considerándose a todos los efectos como un supuesto de resolución por culpa de la adjudicataria.

24.- KONTRATUA LAGATZEA

1.- Kontratutik datozen eskubideak eta obligazioak hirugarren bati laga diezazkioke adjudikazioduna den pertsonak edo enpresak, haren ezaugarri tekniko eta pertsonalak ez badira arrazoi erabakigarriak izan kontratuaren adjudikazioan, eta lagapen horretan ez bada gertatzen merkatuko lehiaren murrizketarik.

2.- Kontratistak bere eskubideak eta obligazioak hirugarren pertsona baten esku utz ditzan, honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Lagapena egin aurretik, kontratazio-organoak berariaz baimentzea lagapena.
b) Lagatzaileak gutxienez kontratuaren % 20 gauzatuta izatea.
c) Lagapen-hartzaile den enpresak kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena izatea, kontratuaren gauzatze-fasearen zer unetan dauden aintzat hartuta eska dakiokeenaren arabera; lagapen-hartzaileak behar bezala sailkatuta egon beharko du, lagatzaileari baldintza hori eskatu bazaio, eta ez du kontratatzeko debekurik izan behar bere gain.
d) Enpresa adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatzea.

24.- CESIÓN DEL CONTRATO

1.- Los derechos y obligaciones dimanantes del contrato podrán ser cedidos por la persona o empresa adjudicataria a una tercera persona siempre que sus cualidades técnicas o personales no hayan sido razón determinante de la adjudicación del contrato y de la cesión no resulte una restricción efectiva de la competencia en el mercado.

2.- Para que la contratista pueda ceder sus derechos y obligaciones a terceras personas deberán cumplirse los siguientes requisitos:

a) Que el órgano de contratación autorice expresamente y con carácter previo la cesión.
b) Que la cedente tenga ejecutado al menos un 20 por 100 del importe del contrato.
c) Que la empresa cesionaria tenga capacidad para contratar y la solvencia que resulte exigible en función de la fase de ejecución del contrato, debiendo estar debidamente clasificada si tal requisito ha sido exigido a la cedente, y no estar incursa en una causa de prohibición de contratar.

d) Que la cesión se formalice, entre la empresa adjudicataria y la empresa cesionaria, en escritura pública.

3.- Lagapen-hartzailea subrogatuta geratuko da lagatzaileari dagozkion eskubide eta obligazio guztietan.

3.- La cesionaria quedará subrogada en todos los derechos y obligaciones que corresponderían a la cedente.

25.- BALDINTZAK EZ BETETZEAGATIKO ZIGORRAK

25.- PENALIDADES POR INCUMPLIMIENTO

25.1 Berandutzeagatiko zigorrak

25.1 Penalidades por demora

Adjudikaziodunak kontratua gauzatzeko epea eta kontratazio-organoak zehaztutako epe partzialak bete behar ditu nahitaez.

El adjudicatario queda obligado al cumplimiento del plazo de ejecución del contrato y de los plazos parciales fijados por el órgano de contratación

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratua betetzeko guztizko epea atzeratuko balitz, administrazioak kontratua suntsiaraz dezake, edo egun bakoitzeko zigorra ezar dezake, kontratuaren prezioko 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euroko proportzioan, BEZa kontuan hartu gabe.

Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del contrato o por la imposición de las penalidades diarias en la proporción de 0,60 euros por cada 1.000 euros del precio del contrato, IVA excluido.

Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak eskumena izango du kontratua suntsiarazteko, edo hura gauzatzen jarraitzea erabakitzeko, beste zigor batzuk ezarriz.

Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5% del precio del contrato, el órgano de contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratuan zehaztutako prestazioak zati batean gauzatuko ez balira, administrazioak kontratua suntsiaraz dezake, edo lehenago zehaztutako zigorrak ezar ditzake.

Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido la ejecución parcial de las prestaciones definidas en el contrato, la Administración podrá optar, indistintamente, por su resolución o por la imposición de las penalidades establecidas anteriormente.

25.2 Prestazioa ez betetzeagatiko edo oker betetzeagatiko zigorrak

25.2 Penalidades por incumplimiento o cumplimiento defectuoso de la prestación

Oso larritzat jotzen da adjudikaziodunak baldintza partikularren agiri honetako 20. klausulan zehaztutako funtsezko betebeharretatik edozein ez betetzea.

Se consideran muy graves los incumplimientos por parte del adjudicatario de cualquiera de las obligaciones esenciales establecidas en la cláusula 20 de este pliego de cláusulas particulares.

Dokumentu kod./Cod. Documento	2024IKIE0013-A24/05695
CUDO kodea/Có. CUDO	**000.0081.AAAAFJ95.J.i7be**
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	**https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAFJ95J.i7be**

Ez badira betebeharrak betetzen, kontratua suntsitu ahal izango da, gertaera hori salbuespentzat jotzen bada eta onbideratzeko aukera ikusten bada izan ezik, edota kontratua suntsitzea zerbitzuaren intereserako komenigarria ez dela ikusten bada; kasu horietan, kontratua suntsitu ordez, dagokion zigorra ezarriko da.

Estos incumplimientos serán causa de resolución del contrato, salvo que se considere que la actuación es aislada y susceptible de reconducción, y que la resolución del contrato no resulta conveniente para el interés del servicio en cuestión, en cuyo caso se sustituirá por la penalización correspondiente.

Oso larritzat jotzen diren kontratuaren ez-betetze horien ondorioz, adjudikazio-prezioaren % 5eko zigorrak ezarriko dira (BEZ gabe) arau-hauste bakoitzeko edota epetik kanpoko egun bakoitzeko, arau-haustearen larritasunaren, errepikapenaren eta fede txarraren arabera.

Estos incumplimientos contractuales muy graves conllevarán la imposición de las penalidades del 5 % del precio de adjudicación IVA excluido, por cada infracción y/o día de incumplimiento de plazos en función de gravedad, reincidencia y mala fe en la comisión de la infracción.

Kontratistak azpikontratazioaren arloari dagokionez 21. klausulan zehaztutako betebeharrak betetzen ez baditu, azpikontratatutakoaren zenbatekoaren % 10eko zigorra ezarriko da, eta errepikatzen badu, kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da.

El incumplimiento por parte del contratista de las obligaciones establecidas en la cláusula 21 en materia de subcontratación, conllevará una penalización del 10% del importe de lo subcontratado, siendo su reiteración causa de resolución del contrato.

Adjudikaziodunak beste edozein kontratu-betebehar (baldintza administratiboen agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian ezarritakoak) betetzen ez badu edo oker betetzen badu, kontratuaren prezioaren %5 eta % 10 arteko isun hertsagarria ezarriko da, larritasunaren arabera eta behin baino gehiagotan egin duen kontuan hartuta.

El incumplimiento por parte del adjudicatario de cualquier otra de sus obligaciones contractuales (las establecidas en el pliego de cláusulas administrativas y en el de prescripciones técnicas) o su cumplimiento defectuoso, conllevará igualmente una multa coercitiva de entre el 5% y el 10 % del precio del contrato, en función de su mayor o menor gravedad y reincidencia.

Bainugelak ixteko ezarritako ordutegia ez bada betetzen 100 euro/eguneko isuna jarriko da.

En caso de incumplimiento de la obligación del cierre de los baños en el horario estipulado, se impondrá una sanción de 100 euros/día.

Dena den, zigorrak, guztira, kontratuaren prezioaren % 50ekoak izango dira gehienez.

En todo caso, el total de las penalidades no podrá superar el 50% del precio del contrato.

Adjudikaziodunari ezarriko zaizkion zigorrak direnak direla, ez-betetze horren

Las penalizaciones que se impongan al adjudicatario son

ondorioz udalari edo hirugarrenei eragindako kalte eta galerengatiko kalte-ordainak ordaindu beharko ditu kontratistak, eta udalaren kontra jo ahal izango du.

Adjudikaziodunak bere eskaintzaren alderdi batzuk betetzen ez dituen kasuan, kontratistari eskatuko zaion kalte-ordainak barnean hartuko du, hala badagokio, bere eskaintzaren eta kontratua adjudikatu zaion hurrengo kontratistaren arteko aldea, adjudikaziodunak bete ez duen irizpidea kontuan izan gabe.

independientes de la obligación del contratista de indemnizar por los daños y perjuicios que su incumplimiento ocasione al Ayuntamiento o a terceros con derecho a repetir contra el Ayuntamiento.

En el caso de incumplimientos por parte del adjudicatario de aspectos de su oferta, la indemnización que se exigirá al contratista incorporará la diferencia que en su caso haya existido entre su oferta y la del siguiente contratista al que se hubiese adjudicado el contrato sin tener en cuenta el criterio que no ha cumplido el adjudicatario.

25.3. Zigorren ezarpena

Kontratua ez betetzearen ondoriozko zigor eta kalte-ordain hauek ezartzeko kontraesaneko espediente laburra hartuko da oinarritzat, eta, salaketa jarri ondoren, 5 egutegi-eguneko epea izango du kontratistak alegazioak aurkezteko. Alkateak edo hark bere ordez izendatutako zinegotziak ebatziko ditu alegazioak eta zigor-espedientea, zerbitzuko udal-arduradunak txostena egin ondoren eta txosten juridikoa jaso ondoren; ebazpena ematearekin batera amaituko da bide administratiboa.

25.3 Imposición de penalidades

Para la imposición de estas penalizaciones e indemnizaciones por incumplimientos contractuales se seguirá un expediente contradictorio sumario, en el que se concederá al contratista un plazo de alegaciones de 5 días naturales tras formularse la denuncia. Dichas alegaciones y el expediente de penalización será resuelto, previo informe del responsable municipal del servicio e informe jurídico, por el Sr. Alcalde o Concejal en quien delegue, resolución que pondrá fin a la vía administrativa.

Zigor horiek ezartzeko espedientea gertaeren berri idatziz jasotzen duen unean abiaraziko du udalak. Hala ere, betebeharrak ez bete arren, horrek lanak gauzatzeko orduan ondorio larririk eragiten ez duela ondorioztatzen bada edo zigor-espedientea abiaraztea kontratuaren martxarako onuragarria baino kaltegarriagoa izango dela jotzen bada, kontratuaren berme-epea amaitu baino lehenagoko edozein unetan abiarazi ahal izango da espedientea.

El inicio del expediente para la imposición de estas penalidades por el Ayuntamiento se realizará en el momento en que tenga conocimiento por escrito de los hechos. No obstante, si se estima que el incumplimiento no va a afectar a la ejecución material de los trabajos de manera grave o que el inicio del expediente de penalización puede perjudicar más a la marcha de la ejecución del contrato que beneficiarla, podrá iniciarse dicho expediente en cualquier momento anterior a la terminación del plazo de garantía del contrato.

Ezarritako zigorrak eta kalte-ordainak berehala gauzatu ahal izango

Las penalidades e indemnizaciones impuestas serán

dira, eta udalak kontratistari egin behar dizkion ordainketetatik kendu ahal izango dira. Ordainketa guztiak eginak baditu udalak, behin betiko bermetik kendu ahal izango dira kopuru horiek, eta behin betiko bermea zigorra ordaintzeko nahikoa ez bada, premiamendu-bide administratiboa erabiliz egin ahal izango da erreklamazioa, zuzenbide publikoko sarreratzat hartu behar delako.

inmediatamente ejecutivas y se harán efectivas mediante deducción de los pagos correspondientes que el Ayuntamiento tenga pendientes de abonar al contratista. Si ya no existiesen cantidades pendientes de pago, se podrán hacer efectivas contra la garantía definitiva y si ésta no alcanzase el montante de la penalización, se podrá reclamar por la vía administrativa de apremio por considerarse ingreso de derecho público.

26.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Baldintza-agiri honetan adierazitako kasuetan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 211. eta 313. artikuluetan zehaztutako kasuetan suntsiarazi ahal izango da kontratua; eta kontratazio-organoak erabakiko du, edo ofizioz edo kontratistak eskatuta gauzatuko da.

Gainera, kontratazio-organoak kontratua suntsiarazi ahal izango du kontratua gauzatzeko zehaztutako guztizko epea betetzen ez denean, edo epe partzialak betetzen ez direnean, eta guztizko epea betetzea ezinezkoa izango dela aurreikusten denean, betiere, kontratazio-organoak, kontratua suntsiarazi ordez, zigorrak ezartzea erabakitzen ez badu, 25. klausularekin bat etorrita.

Halaber, kontratua suntsiarazteko arrazoi izango dira kontratazio-organoak funtsezko betebehar gisa ezarritakoak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 211 f) artikuluan oinarrituta.

Kontratua kontratistaren erruz eten bada, behin betiko bermea konfiskatuko da; horrek, ordea, ez dio inolako kalterik ekarriko administrazioari eragindako kalte eta galeren kalte-ordaina ordaintzeko

26.- RESOLUCIÓN DEL CONTRATO

La resolución del contrato tendrá lugar en los supuestos que se señalan en este Pliego y en los fijados en los artículos 211 y 313 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, y se acordará por el órgano de contratación, de oficio o a instancia del contratista.

Además el contrato podrá ser resuelto por el órgano de contratación cuando se produzcan incumplimiento del plazo total o de los plazos parciales fijados para la ejecución del contrato que haga presumiblemente razonable la imposibilidad de cumplir el plazo total, siempre que el órgano de contratación no opte por la imposición de las penalidades de conformidad con la cláusula 25.

Asimismo serán causas de resolución del contrato al amparo del artículo 211 f) de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público las establecidas como obligaciones esenciales por el órgano de contratación.

Cuando el contrato se resuelva por culpa del contratista, se incautará la garantía definitiva, sin perjuicio de la indemnización por los daños y perjuicios originados a la Administración, en lo que

beharrari, bermearen zenbatekoa gainditzen duen kasuetan.

excedan del importe de la garantía.

27.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

1.- Kontratuaren adjudikazioari dagokion ebazpenean, kontratuaren arduradun izango den pertsona izendatuko du kontratazio-organoak, eta kontratua nola gauzatzen den gainbegiratzea, adostutako zerbitzua behar bezala ematen dela ziurtatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea dagokio pertsona horri.
Horrez gain, kontratuaren arduradun den pertsona horrek kolaboratzaileak izan ditzake, dagozkion titulu profesionalen edo ezaguera espezifikoen arabera; kontratuaren adjudikazioari dagokion ebazpenean bertan identifikatu dira beroriek.

2.- Kontratuaren ardura duen pertsona hori izango da enpresa adjudikaziodunaren eta kontratazio-organoaren arteko solaskidea.

3.- Pertsona arduraduna eta harekin ari diren kolaboratzaileak, beren zereginak bete ahal izateko, askatasun osoz sartu ahal izango dira kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko tokietan, eta, kontratistak koordinatzaile izendatutako pertsonarekin batera, egoki iruditzen zaizkion ikuskapenak egin ahal izango ditu, toki horiek eta horiei dagozkien baldintza teknikoak kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko erabakigarriak badira. Kasu horietan, arduradunak toki horietara jotzeko beharra justifikatu beharko du, administrazio-espedientean xeheki eta berariaz adierazita; eta kontratazio-organoak berretsi egin beharko du hori aurrez.
Horrez gain, egoki iruditzen zaion informazioa eta dokumentazioa eskatu ahal izango ditu, eta kontratuaren xede diren zerbitzuak behar bezala gauzatzeko eta zeregin horietan sor daitekeen gorabehera oro konpontzeko

27.- RESPONSABLE DEL CONTRATO

1.- El órgano de contratación designará en la resolución de adjudicación del contrato a una persona responsable del contrato, a la que corresponderá supervisar su ejecución y adoptar las decisiones y dictar las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta realización de la prestación pactada.
Asimismo, la persona responsable del contrato podrá contar con personas colaboradoras, en función de títulos profesionales o conocimientos específicos, que serán identificadas en la misma resolución de adjudicación del contrato.

2.- La persona responsable del contrato es la persona interlocutora entre la empresa adjudicataria y el órgano de contratación.

3.- Para el ejercicio de sus funciones, la persona responsable y quienes colaboren con ella tendrán libre acceso a los lugares de prestación del objeto del contrato, y podrán realizar las inspecciones que consideren oportunas acompañadas por la persona designada por la contratista como coordinadora, siempre que dichos emplazamientos y sus condiciones técnicas sean determinantes para el desarrollo de las prestaciones objeto del contrato. En estos casos, la persona responsable del contrato deberá justificar la necesidad del acceso, de forma expresa y detallada en el expediente administrativo, que deberá ser ratificado, previamente, por el órgano de contratación.
Asimismo, podrán solicitar la información y documentación que estimen oportuna y promover y convocar las reuniones que resulten necesarias para la adecuada ejecución del objeto del contrato y para

beharrezkoak iruditzen zaizkion bilerak sustatu eta bilera-deiak egin ahal izango ditu.
Kontratuaren arduradunak egoki iruditzen zaizkion gidalerroak zehaztuk ditu.

solucionar cualquier incidente en su ejecución.

La persona responsable del contrato establecerá las directrices oportunas.

4.- Bereziki, honako funtzio hauek dagozkio:

a) Kontratua agiri horretan adierazitako baldintzetan eta aurreikusitako epean gauzatzen dela egiaztatzea. Bereziki, kontratuaren kalitate-eskakizunak, gizarte- eta ingurumen-klausulak, izaera sozialeko klausulak eta klausula berritzaileak betetzen direla berresteko beharrezkoak diren jarduketak garatzea.

b) Ez-betetzeren bat, edozein dela ere, gertatzen denean, kontratazio-organoari horren berri ematea, eta, hala dagokionean, proposamena egitea zigorrak ezartzeko prozedura hasteko, kontratua eteteko, kontratua suntsiarazteko edota kontratua behar bezala betetzen dela berma dadin edo enpresa kontratistak bere betebeharrak ez betetzeak eragindako kalte eta galeren ondorioz administrazioari dagokion ordaina eman diezaion beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

c) Kontratuan aldaketaren bat egin behar dela irizten dionean, aldaketarako gomendioa egitea, eragiketa eraginkorragoak ekarriko dituzten zehaztapenak, jarraibideak edota bestelako eskakizunak azalduz.

d) Kontratazio-organoaren jarraibideak betez, kontratuari atxikitako giza eta gauza-baliabideetan aldaketak baimentzea, kontratua aldatzea ez dakarten kasuetan.

e) Luzapenen beharrari eta egokitasunari buruz informatzea eta

4.- En particular, le corresponden las siguientes funciones:

a) Comprobar que la ejecución se desarrolla en los términos del contrato, y en el plazo de duración previsto. En especial, llevar a cabo las acciones necesarias para verificar si se cumplen los requisitos de calidad del contrato y las cláusulas sociales, medioambientales, de tipo social e innovadoras.

b) Informar al órgano de contratación sobre los incumplimientos de cualquier clase y, cuando corresponda, proponer el inicio del procedimiento de imposición de penalidades, la suspensión del contrato, la resolución del contrato y la adopción de cuantas medidas sean necesarias para garantizar el correcto cumplimiento del contrato o para resarcir a la Administración de los daños y perjuicios que provoque el incumplimiento de la empresa contratista.

c) Recomendar cualquier cambio necesario en el contrato, como especificaciones, instrucciones u otros requisitos que proporcionen operaciones más eficaces.

d) Autorizar, siguiendo las instrucciones del órgano de contratación, la alteración de medios humanos o materiales adscritos al contrato en aquellos supuestos que no supongan modificación del mismo.

e) Informar y motivar la necesidad y

horiek motibatzea.

f) Enpresa kontratistak azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzeko duen betebeharra betetzen duela egiaztatzea.

5.- Kontratua gauzatzeko garaian aldatu egiten badira kontratuaren arduraduna edo haren kolaboratzaileak, halaxe jakinaraziko zaio enpresa kontratistari, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

28.- DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarrian adierazitako betebeharrak bete beharko ditu kontratistak, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoari dagokionez, bai eta datu pertsonalen tratamenduarekin lotuta pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen 2016/679 Erregelamenduari dagokionez ere (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra).

29.- KONTRATUAREN ERREGIMEN JURIDIKOA

Kontratu honek izaera administratiboa du, eta baldintza-agiri hauetan ezarritakoa hartuko da kontuan kontratua prestatzeko, adjudikatzeko, izango dituen eraginetarako eta eteteko. Baldintza-agirian aurreikusi ez diren kasuetan, honako hauek hartuko dira kontuan: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituena; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua;

procedencia de prórrogas.

f) Comprobar que la empresa contratista cumple con su obligación de pago a las subcontratistas o suministradoras.

5.- Si durante la ejecución del contrato se modificara la persona responsable del contrato o las personas colaboradoras, será puesto en conocimiento de la empresa contratista por escrito y publicado en el perfil del contratante.

28.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

En el caso de que la presente contratación implique el acceso a datos de carácter personal, la contratista deberá cumplir las obligaciones derivadas de la Disposición Adicional 25 de la LCSP, en relación con la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal y en el Reglamento 2016/679 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (Reglamento general de protección de datos).

29.- REGIMEN JURIDICO DEL CONTRATO

Este contrato tiene carácter administrativo y su preparación, adjudicación, efectos y extinción se regirá por lo establecido en este Pliego, y para lo no previsto en él, será de aplicación la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, y el Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la

eta Administrazio Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra onartzeko baliatutako urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, 817/2009 Errege Dekretua indarrean jarriz geroztik indarrean badago; modu osagarrian, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Ley de Contratos de las Administraciones Públicas y esté vigente tras la entrada en vigor del Real Decreto 817/2009; supletoriamente se aplicarán las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las normas de derecho privado.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 27.1. artikuluak xedatzen duenaren arabera, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak du kontratu honetako bi alderdien artean sortzen diren eztabaidak ebazteko eskumena.

El Orden Jurisdiccional Contencioso-Administrativo será el competente para resolver las controversias que surjan entre las partes en el presente contrato de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27.1 Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

EGINBIDEA: Zumaiako Udaleko Alkateak, baldintza administratiboen agiri hau onartu du 2024ko maiatzaren 29ko 671/2024 Alkate Dekretu bidez.	**DILIGENCIA:** El presente Pliego de cláusulas administrativas ha sido aprobado por Decreto de Alcaldía 671/2024 de fecha 29 de mayo de 2024.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ
29/05/2024

Dokumentu kod./Cod. Documento	2024IKIE0013-A24/05695
CUDO kodea/Có. CUDO	**000.0081.AAAAFJ95.J.i7be**
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	**https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAFJ95J.i7be**